

## **12. GERRAONDOAN SOLDADU**

Ni soldadu nintzelarik zen gerra ondoan.

### **Klaro. Eta soldadu non egon zinen?**

Non? Afrikan. Afrikan pasatu nituen hiru urte eta erdi.

### **Eta non?**

Non? Larache, ez dakit aditu izan duzun, Larache eta Alcazarquivir. Horiek bietan.

### **Eta nola joan zineten hemendik? Trenez?**

Bai, bai. Trenez, klaro. Hemendik Iruñera eta Iruñetik trenean, tren batzuk eta... aziendarekin ibiltzen zirenak, ja ere eserlekurik eta ja ere gabe. Eta oroitzen naiz Iruñetik eta... ez dakit non zen, hurbil, bazen ahotz pila eta hartu pakete zenbait eta bagoira.

### **Egiteko lo edo...?**

Bai, bai.

### **Eta han zer egiten zenuten, Afrikan?**

Afrikan? Pues e... ja ere! Zer egin behar genuen! Instrukzioa.

### **Instrukzioa.**

Instrukzioa ikasi eta gero han egunero bueltaka.

### **Moroekin gora eta behera edo zer?**

Bai, bai, instrukzio zerbait beti, egunero. Eta, ni egon nintzen e... eta... telefonoa hedatzen genuen kanpoan haria eta telefonoz deitu batzuk bertzerara eta hala. Zerbaitetan...

### **Eta zenbat urte egon zinen?**

Pues hiru, hiru pasaturik. Hiru... hiru pasaturik, bai, bai. Bazen... kanpoan, inguruan zen gerra, Alemania eta División Azul. Orduan eduki gintuzten pues igual... eman gogo zigutela kanpora, gerrara. Baina, eduki gintuen geldirik, ez gintuen inora bidali Francok.

### **Eta zera, ordaintzen al zen milian egunero edo? Ordaintzen al zen zerbait? Igual...**

Bai, bai, e... zenbait ordaintzen zuten? Hamar sos.

### **Hamar sos.**

Hamar sos egunean.